



ABALTZISKETA

## **2016KO URTARRILAREN 12KO BILKURAKO AKTA**

**Organoa:** Abaltzisketako Osoko Bilkura.

**Lekua:** Abaltzisketan

**Ordua:** 19: 00etan

**Deialdia:** Lehenengoa

**Bildutakoak:** Jon Zubizarreta. Alkatea  
Aritz Garmendia. Zinegotzia  
Felix Maioz. Zinegotzia  
Adur Gorostidi. Zinegotzia  
Jose Maria Egunez. Zinegotzia  
Kepa Gorostidi. Zinegotzia

**Idazkaria:** Nekane Lopetegi

### **GAI ZERRENDA**

1. 2015-11-12 Bilkurako akta onartzea, hala balegokio.
2. Larraitzko Zuhazpeko parkeko esleipena proposamena ontzat ematea, eta hitzarmena sinatzeko Alkatea baimentzea.
3. Alkateak emandako ebazpenak jakinaraztea: 35 zenbakia duen ebazpenetik 51 zenbakia duten arte, biak barne.
4. 2016 urteko aurrekontuari haserako onarpena ematea.

### **1- 2015-11-12 BILKURAKO AKTA ONARTZEA, HALA BALEGOKIO.**

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2015-11-12ko Bilkurako aktaren izenburuak irakurtzeari ekiten zaio. Bertan, hitzez hitz irakurtzen ez bada ere, izenburuak komentatu eta laburtzen dira. Mahaikideen aldetik aurkakorik esan ez denez, dagoen bezala onartutzat eman da.



ABALTZISKETA

**2- LARRAITZKO ZUHAIZPEKO PARKEKO ESLEIPENA PROPOSAMENA ONTZAT EMATEA, ETA HITZARMENA SINATZEKO ALKATEA BAIMENTZEA.**  
**LARRAITZKO ZUHAIZPEKO KIROL ETA AISIALDIRAKO GUNEAREN KUDEAKETA ESLEIPENA PROPOSAMENA**

Larraitzko parkearen kudeaketa 2016 urteko martxoan amaten zela eta, Toki administrazioetako kontratazio legediak dioena betetzearren, lizitazio prozedurari hasera ematea erabaki zuen Alkateak.

**LEHENA**.- 2015eko azaroaren 12ko Osoko Bilkuran, Larraitzko parkearen kudeaketa arautuko duen baldintza pleguari onarpena eman zitzaion. Baldintzaren xehetasunak jarraian agertzen dira:

**LARRAITZKO ZUHAIZPEKO KIROL ETA AISIALDIRAKO GUNEAREN KUDEAKETA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA PLEGUA**

**BALDINTZA PLEGU ADMINISTRATIBOA**

**Deialdiaren objektoa:** Larraitzko zuhaizpeko kirol eta aisialdirako gunearen kudeaketa egitea da.

**Iraupena:** Larraitzko kirol eta aisialdiaren guneko kudeaketaren iraupena 2016ko apirilaren batetik hasi eta bost urte bitarte izango da, hau da 2021ko martxoaren 30 arte .

Kontratuaren epea bukatzen denean, zerbitzua Udalari itzuliko zaio, esleipendunak kontratoaren arabera beharturik dagoen obra eta instalazioak bueltatu beharko ditu, kontserbazio eta funtzionamendu egokian daudela egiaztatuz .

**Lehiaketan parte hartzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa:**

- 1- Nortasun Agiri Nazionala edo fotokopia. Pertsona juridikoen kasuan Identifikazio Fiskalaren Kodea.



## ABALTZISKETA

- 2- Autonomo eraentzan Alta emanaren egiaztagiria edo emakidaren esleipen-akordioan adieraziko den epean lortzeko konpromezua; bestela, emakida amaitutzat emango da.
- 3- Ezintasun eta bateraezintasun kasuetan ez egotearen zinpeko aitordpena (Estatuko Kontratazio-Erreglamendua -23. artikulua-; Korporazio Lokalen Kontratazio-Erreglamendua -4. eta 5. artikulua-; eta Estatuko Kontratuen Legea -9. artikulua-).
- 4- Iharduera Ekonomikoen Gaineko Zergan Alta emanda egotearen egiaztagiria.
- 5- Horrela badagokio, diru-laguntza eta derrigorrezko Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean dituenaren ziurtagiria.
- 6- Sozietate edo Ondasun Erkidego batek lehiatzen duenean, Sozietatearen eratze-eskritura, eta, legediak galdatzen direnei, dagokion Erregistroan inskribatua egotea.
- 7- Bere zerbitzura dagoen pertsonalaren lan-istripu eta gaisotasun profesionalaren arrisku-babespenari buruzko dokumentu formalizatua, dagokion Lan Mutualitatean (Gizarte Segurantzaren Legearen Testu Bateratua, EDL 2.065/74-05-30 -204.2.b artikulua-) edo formalizatuko denaren konpromezua; bestela, emakida amaitutzat emango da.
- 8- Lehiaketa hau zuzentzen duen Plegutik eta bertatik ondorioztatzen diren hainbat betebeharren onarpen osoa, bai lehiakide bezala, bai esleipendun bezala.
- 9- Erantzukizun zibileko arriskuak betetzeko Higiezin eta Erantzukizun zibilaren aseguru poliza bat eratu duenaren egiaztagiria, non jarduera honetan gerta zitekeen kalteei erantzutekoa .



**ABALTZISKETA**

## **BEHIN-BETIKO FIDANTZA**

Esleipendunak esleipenaren jakinarazpena jasotzen duenean, behin-betiko fidantza osatu beharko du, 5.000,00 € behin-betiko berme hau Korporazioaren kutxan gordailatu beharko da. Behin-betiko fidantzaren kasuan bakarrik onartuko da banku-abala, bera bermatzeko bide bezala (Errege Dekretu Legegilea 781/1986-04-18, -113.7 artikulua-).

## **KORPORAZIOAREN ESKUBIDE ETA OBLIGAZIOAK**

Kontratatzaren diren lanen prestazioa egokia izan dadin, Udalak ondorengo ahalmenak edukiko ditu, beti ere berez dagozkionak ahaztu gabe:

- 1- Emakidadunak daraman gestioaren fiskalizazioa; honen bidez, zerbitzua, bertako obrak, instalazioak, eta emakidaren xedearekin erlazionatuta dauden dokumentazioa aztertu ahal izango du, eta behar den prestazioa mantendu edo berriz hasteko agindua eman ere bai.
- 2- Udala eta emakidadunaren artean Oinarrietako edozein hitz, esaldi, esamolde edo gainerako dokumentazioari ez ezik, edozein balorazio interpretatzerakoan sortu daitezkeen zalantzak edo diferentziak, udalak modu baterazle eta bakarrean konponduko ditu.
- 3- Emakidadunari, dagozkion zuzenketak inposatuko dizkio egindako arau-hausteengatik.
- 4- Udalak kontratatutako zerbitzuaren ezaugarriak eta erabiltzaileek ordaindu behar dituzten salneurriak alda ditzake, interes publikoan oinarrituta. Aldaketa horrek kontratoaren finantza-erregimenean eragina baldin badute, Udalak emakidaduna ekonomikoki konpentsatu beharko du, emakidaren oreka finantzieroa mantendu dadin.
- 5- Udala emakidadunaren obligazioak aldatzeko eskudun izango da. Honek funtsezko aldaketa bat suposatuko balu, esleipen-kontratu honetako baldintzak berrikusketari ekingo zaio.



ABALTZISKETA

## KUDEAKETA ESKURATZEN DUENAK ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

Kudeaketa eskuratzen duenak ondorengo eskubideak ditu:

- 1- Aisialdi gunearen edozein motako obra eta instalazioak egin ahal izango ditu; baina horretarako, Udalak, aldez aurretik, baimendu beharko dio. Egiten diren obrak finkaren onurarako geldituko dira. Udalak obra eta instalazioen baimenak ukatzeko ahalmena izango du, hauek zerbitzuaren xede eta hobekuntzara egokitzen ez direla irizten badu, edo aplikagarri zaien legedia betetzen ez duela ikusten badu.
- 2- Korporazioari kontratuaren exekuzioaren ikuskaritza egiten utzi.
- 3- Udalari itzuli beharreko emakidari lotutako ondasunak ezingo ditu ez besterendu, ezta zamatu ere, nolaz eta udalaren esan bidezko eta idatzizko baimena ez duen.
- 4- Kontratuaren lan-objetuen eginbeharrak burutzeko, beharrezkoa den pertsonalaren Gizarte Segurantzaren, Aurreikuspen eta Laneko Segurtasun-obligazioetan eta Jarduera Ekonomikoen Zergaren Altan eguneratua egon.
- 5- Kontratuaren lan-objektuen eginbeharrak behar bezala burutzeko ez ezik, baja, ausentzia eta abarrak betetzeko ere beharrezko pertsonal guzia jarri beharko du.
- 6- Hirugarren bati gerta dakionaren erantzukizun zibila eta penala babesteko aseguro poliza egin beharko du, (**gutxienez, 600.000 eurokoa**). Baita ere, instalazioaren babesarako aseguroa, kudeatzen duen denboraldian, erabiltzeagatik edo bestelako ezustekoak direla eta hautsi edo baliorik gabe geratzen badira berriro erreparatzeko eta lehen zegoen bezala uzteko.
- 7- Erabilgarri diren obra eta instalazioak behar bezalako ardurarekin mantendu.



## **ABALTZISKETA**

- 8- Hileko kanona 400 eurokoa izango da, B.E.Z.a kanpo, lehenengo urtean. Ondorengo beste urteetan, I.P.C. deritzanaren igoera aplikatuz izango da. Eta hilaren hasieran, hilaren 5 bitarte ordaindu behar da.
  
- 9- Eraikina eta instalazioak kontserbazio eta funtzionamendu egoera onean mantendu. Sortzen den edozein akats emakidunak konpondu beharko du berehala.

## **KONTRATUA EZIN ESQUALDATU**

Emakidadunak, kontratua, Korporazio Lokalen Zerbitzu-Erreglamenduko 128.2 artikulua araberaz gauzatu du; eta ezingo du hirugarren bati eskualdatu edo eman, korporazioaren baimen zehatz eta idatzirik gabe. Korporazioak, ordea, bere aldetik, ahalmen hori izango du, beti ere Korporazio Lokalen Kontratazio--Erreglamenduko 52. artikuluan eskatzen diren baldintzetan.

## **EZ BETETZEAK**

Kontratua perfektionatzen den unetik aldezina izango da eta oinarritzat duen Pleguari zorrotz lotuta bete beharko da. Plegu horien baldintza juridiko, tekniko eta ekonomikoak, Plegu beraren klausulatuak agintzen duen bezala soilik aldatuko dira.

Hemen adierazten diren edozein artikulua eta obligazio bere osotasunean edo zati batean ez betetzea zigortua izango da. Era berean, instalazioen funtzionamenduan gertatzen diren hutsuneengatik zigorrak jarriko dira.

## **ZIGORRAK**

Zigorrak indarrean dagoen legedian aurreikusitako kasu eta zenbatekoetan jarriko dira, ondoren adierazten dena ahaztu gabe.



ABALTZISKETA

## KONTRATUAREN AMAIERA ETA HORRETARAKO ARRAZOIAK

Emakidadunaren aldetik kontratuko edozein klausula ez betetzeak Korporazioa baimentzen du kontratua zorrotz betearazteko edo kontratua amaitutzat emateko. Emakidadunaren aldetik engainu, iruzur edo gezurrik egon bada, kontratua amaitutzat emango da.

Kontratua amaitutzat emateko arrazoi zehatzak honako hauek dira:

- 1- Urte batean zehar hiru zigor ezarri izana.
- 2- Emakidadunaren heriotza.
- 3- Emakidadunaren nortasun juridikoaren amaiera.
- 4- Kontratudunaren porrota. Eta porrota erruzkoa edo iruzurrezkoa izateak jarritako fidantzaren galera ekarriko du.
- 5- Korporazio eta emakidadunaren arteko adostasuna.
- 6- Eta oro har, kontratoarekin zerikusia duten gainerako legeek ezartzen dituztenak.

## ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Emakidadunak gutxienez **600.000 euroko** poliza hitzartu beharko du, erantzukizun zibilari dagokiona.

**BIGARRENA.-Argitalpena .-**2015eko abenduaren 18ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jendaurrean jarri zen , eta jendaurreko epealdian inolako alegaziorik ez da tarteratu .

**HIRUGARRENA.-Proposamenak aurkezteko epea.**-Proposamenak aurkezteko epea , 2016eko urtarrilaren 7a barne , amaitzen da .



ABALTZISKETA

### LAUGARRENA.-Jasotako proposamenak .-

- BIZIBIZIKI S.L B75016246. Baldintza pleguan jasotakoa beteko duela adieraziaz.

#### ERABAKI PROPOSAMENA :

1. Erantzukizun zibileko polizaren epealdia adierazten duen erreziboa aurkeztea jarduerari hasera eman aurretik.
2. Aurreko kontzesioaren amaieran, parkeko elementuak ondo geratu direla egiaztagiria ez da aurkeztu, eta horregatik, jardueraren amaieran ordez, hasieran, derrigorrez, parkeko elementuak legez eta ondo daudela adierazten duen egiaztagiria, eskumena duenak sinatua aurkeztea.
3. Eta Bizibizikiri esleipena egitea.

#### Mahaikideek, ERABAKI DUTE:

1. Erantzukizun zibileko polizaren epealdia adierazten duen erreziboa aurkeztea jarduerari hasera eman aurretik.
2. Aurreko kontzesioaren amaieran , parkeko elementuak ondo geratu direla egiaztagiria ez da aurkeztu, eta horregatik, jardueraren amaieran ordez, hasieran, derrigorrez, parkeko elementuak legez eta ondo daudela adierazten duen egiaztagiria, eskumena duenak sinatua aurkeztea.
3. Eta, Bizibizikiri esleipena egitea.

### **3- ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK JAKINARAZTEA: 35 ZENBAKIA DUEN EBAZPENETIK 51 ZENBAKIA DUTEN ARTE, BIAK BARNE.**

Alkateak emandako honako ebazpenak ontzat eman dira :  
35/2015. I eta G. A. ren baimenak.  
36/2015. Rallyesprinterra.





## ABALTZISKETA

- 37/ 2015 2015/09 fakturak.  
38/ 2015 Txalburu eskolako lanen faktura onartzea  
39/ 2015 A.I. G ri kultur etxeko giltza ematea  
40/2015 Eskolako haurren erakusketarako mahaiak erabiltzea  
41/2015 Guraso elkarteari pilotalekua erabiltzeko baimena  
42/2015 Abaltzisketako Areto futboleko eskaera pilotalekua erabiltzeko baimena onartzea.  
43/2015 mapa municipal esleitzea  
44/2015 2016 urterako egutegi fiskala  
45/2015 eskolako haurren eskaera plaza erabiltzeko  
46/2015 2015eko 2 seilabeteko zabor errolda onartzea  
47/2015 Tolosaldea garatzen I.A.E kontzeptuan 500 euroko laguntza ematea  
48/2015 J.L.Z.ren lizentzi eskera onartze  
49/2015 M. J. A. ren lizentzi eskera onartzea  
50/2015 J.A.M.ri etxez etxe salmentan ibiltzea eta plaza erabiltzea onartzea.  
51/2015 2015/10 zenbakia duen fakturen zerrenda onartzea  
52/2015 2015/11 zenbakia duen zerrenda onartzea

## 4- 2016 URTEKO AURREKONTUARI HASERAKO ONARPENA EMATEA.

### 2016EKO EKITALDIA

#### GASTUEN EGOERA

Kapitulua	Azalpena	Euroak
1	Pertsonalaren lansariak .....	151.349,69
2	Gastu korront.eta zerb. Gastuak .....	84.330,00
3	Gastu Finantzieroak .....	600,00
4	Transferentzi korrontek .....	49.600,00
6	Inbertsio errealak .....	103.286,31
7	Kapital transferentziak .....	5.500,00
9	Pasibo finantzieroak .....	7.410,00
	<b><u>Guztira .....</u></b>	<b><u>402.076,00</u></b>



ABALTZISKETA

## SARREREN EGOERA

<u>Kapitulua</u>	<u>Azalpena</u>	<u>Euroak</u>
1	Zerga zuzenak .....	50.700,00
2	Zeharkako zergak .....	5.000,00
3	Tasak eta beste sarrerak .....	30.690,00
4	Transferentzi korronteak .....	297.376,00
5	Ondare Sarrerak .....	10.910,00
7	Kapital Transferentziak .....	7.400,00
	<b><u>Guztira .....</u></b>	<b><u>402.076,00</u></b>

2016 urteko aurrekontuari dagokion egonkortasun eta iraunkortasun legea betetzearen txostena idazkariak luzatu du:

2016 urteko aurrekontuari dagokion egonkortasun eta iraunkortasun legea betetzearen txostena idazkariak luzatu du:

### **AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA**

#### **ARAUDI APLIKAGARRIA:**

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- Diputatuen Kontseiluaren akordioa, 2014ko azaroaren 18koa, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.

**AZTERTUTAKO TRAMITEA:** 2016ko Aurrekontua

**FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)**

#### **1- ENTITATE ZERRENDA:**

ABALTZISKETA

#### **2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA**

**Aurrekontuen egonkortasuna**



## **ABALTZISKETA**

Aurrekontuaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek 7.410,00 euroko superabita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakotako sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakotako gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

2016rako ezarritako helburua defizita zero izatea da.

Hori dela eta, aurrekontuaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek bete egiten du aurrekontu egonkortasunaren 2016rako helburua.

### **Finantzen iraunkortasuna**

2016ko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 2015ean likidatutako sarrera arrunten % 0,88 izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2015eko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2016ko aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2016rako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

2016rako ezarritako helburua magnitude hori % 95,00 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, aurrekontuaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek bete egiten du finantza iraunkortasunaren 2016rako helburua.

### **Gastuaren araua**

2015eko eta 2016ko ekitaldien artean, gastu konputagarriaren bariazioa % 20,16 da.

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:



## ABALTZISKETA

GASTU KONPUTAGARRIAREN BARIAZIOA		
a1	2015eko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	402.996,07
a2	SEC doiketak <sup>1</sup>	0,00
a3	2015eko interesak	889,29
a4	Beste entitateei ordaindutako transferentziak (434.01)	1.500,00
a5	Finantzaketa lotua duen gastua 2015ean	98.870,08
<b>a=a1+a2-a3-a4-a5</b>	<b>2015eko gastu konputagarria</b>	<b>301.736,70</b>
b1	2016ko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	394.666,00
b2	SEC doiketak <sup>2</sup>	0,00
b3	2016ko interesak	600,00
b4	Finantzaketa lotua duen gastua 2016an	30.000,00
b5	Araudian eta kudeaketan egindako aldaketen eragina	0,00
<b>b=b1+b2-b3-b4-b5</b>	<b>2016ko gastu konputagarria</b>	<b>362.566,00</b>
<b>c=(b/a-1)*100</b>	<b>Gastu konputagarriaren bariazioa (%tan)</b>	<b>% 20,16</b>

2016rako ezarritako helburua gastu konputagarriaren bariazioa % 1,30 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, aurrekontuaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek ez du betetzen 2016rako gastuaren araua.

### 3- ONDORIOAK

Aurrekontuaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek ez du betetzen 2016rako gastu araua. Beraz, toki entitate hau behartuta legoke, berez, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

Hala ere, kontuan izanda 2016rako ezarritako defizit eta zor helburuak betetzen direla eta aurreko urteko likidazioan aurrezki garbia eta diruzaintza gerakina positiboak izan direla, Jarraibidearen 3. erregelan ezarritakoari jarraituz, kontu hartzaile honek berariazko txostena egin du, honako honi erantsi zaiona, udalbatzarrari jakinaraziko zaiona, eta plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.

ABALTZISKETA, 2016ko uratrirlaren 13an  
Idazkari kontu-hartzailea

### Mahaikideek ERABAKI DUTE :

1- 2016 ekitaldiko aurrekontuaren espedienteari hasera onarpena ematea.  
Udal Erregimenari buruzko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1/1985 Legeko 112.3 artikuluan, Udal Entitateen Aurrekontuari buruzko otsailaren 26ko

<sup>1</sup> Doiketen zenbatekoa adierazgarria den kasuan bakarrik.

<sup>2</sup> Doiketen zenbatekoa adierazgarria den kasuan bakarrik.



## ABALTZISKETA

4/1991 Foru Araueko 15.1 artikuluan eta Udal Entitateen Aurrekontuaren Araudia onartzen duen abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuko 19.1 artikuluan ezarritakoa betez.

2- FAko 17.1 artikuluan eta eta FDko 21.1 artikuluan aipatutako interesatuek Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatuta hamabost egunetako epean alegazioak tarteratu daitezke.

3- Jendaurreko epea iragan eta legaziorik tarteratu ezean, behin betikotzat onartua emango da, erabaki berririk hartu beharrik gabe.

Eta besterik ezean, bilera amaitutzat eman zuen Alkateak, gaueko 21:30etan.

Alkatearen O.E.

Idazkariak